

IRAGARKIA, 599/06 administrazioarekiko auzi-errekurtsuaren administrazio-espeditentea bidali dela jakinarazteko eta hirugarren interesatuak epatzeko dena. 1631

OSASUN SAILA

JAKINARAZPENA, jasotako osasun zerbitzuen-gatik zor diren tasak kitatzeko dena. 1631

AGURAINGO UDALA

IRAGARKIA, Aguraingo udalerrriaren armarria ofizialtzeari buruzkoa. 1633

Pribatuen Iragarkiak

ELGOIBARKO INSTITUTUA

IRAGARKIA, BBBko titulua galdu dela jakitera emateko dena. 1634

KIROLGINTZAN, S.A.U.

IRAGARKIA, Miribilla-Bilbao sektoreko plan partzialeko SZ DP1 eta SZ DP2 partzeletan Miribillako Kirolgunea eraikitze lanak kontratatze-ko lehiaketa irekiarena. 1634

IRAGARKIA, Miribilla-Bilbao sektoreko plan partzialeko SZ SGEM.1 partzelan pilotalekuetarako eta kirolen federazioetarako eraikina eraikitze-ko lanak kontratatze lanak kontratatze-ko lehiaketa irekiarena. 1635

Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

508

AGINDUA, 2006ko abenduaren 29koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, lehentasunez erregimen orokorreko zein erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoruetarako publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeari dagozkion lurzoruetan inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari, eta etxebizitzaren eta lurzoruetan inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 42.

ANUNCIO de remisión del expediente administrativo del recurso contencioso-administrativo n.º 599/06 y emplazamiento de terceros interesados. 1631

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

NOTIFICACIÓN de liquidación de tasas adeudadas por la prestación de servicios sanitarios. 1631

AYUNTAMIENTO DE SALVATIERRA

ANUNCIO relativo a la oficialización del escudo del Municipio de Salvatierra. 1633

Anuncios Particulares

ELGOIBARKO INSTITUTUA

ANUNCIO por el que se hace público el extravío de Título de BUP. 1634

KIROLGINTZAN, S.A.U.

ANUNCIO del concurso abierto para la contratación de las obras de construcción del complejo deportivo de Miribilla, ubicado en las parcelas SZ DP1 y SZ DP2, del Plan Parcial del Sector de Miribilla –Bilbao-. 1634

ANUNCIO del concurso abierto para la contratación de las obras de construcción del Edificio para frontones y federaciones deportivas, ubicado en la parcela SZ SGEM.1, del Plan parcial del sector de Miribilla –Bilbao-. 1635

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

508

ORDEN 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras en materia de suelo referente a la adquisición onerosa de suelo para formación de patrimonios públicos de suelo con destino preferente a la promoción de vivienda de protección oficial de régimen general y de régimen especial.

El Decreto 315/2002 de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo establece en

artikuluaren ezarritakoaren arabera babespeko jarduntzat hartzen da, etxebizitzaren eta lurzorua inguruko gaiari dagokionez, Administrazio Publikoaren mende-koak izango diren lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez eskuratzea, betiere lehenasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratuta.

Halaber, 42. artikuluan ezartzen denez, jardun horren araudia etxebizitza-arloan eskumenak dituen sail-buruaren aginduz garatuko da.

2002ko abenduaren 30eko aurreko Aginduak etxebizitza babesturako lurzoruari buruzko udal-ondarearen arloan jardunak sustatzeko zenbait diru-laguntza erantsi zituen, esate baterako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak eta mailegu kualifikatuen interes-tasak subsidiatzea.

Egia esan, neurri horiek harrera eskasa izan dute Euskadiko herrietan, neurri batean merkatuko interes-tasak jaitsi egin direlako eta baita jardun horiek gauzatzeko epe laburrean hirigintzarako garapenik izango ez duten lurrak erreserbatzeko baliabideak berehala ordaindu behar direlako.

Nolanahi ere, 2006-2009 Etxebizitza Bideratzeko Plan berriaren arabera, jardun horiek oso interesgarriak dira udalerrietan ondo antolaturiko hirigintza-garapena izateko eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak eskatzen dituen lurzorua inguruko udal-ondarearen lurzoru eta etxebizitza merkatua arautzeko oinarritzko helburuak lortzeko.

Hortaz, finantza-neurrietan jardun horiek erakargarriago egingo dituzten aldaketak egitea eskatzen da, jardun horien kopurua haztea bultzatzeko.

Era berean, urte hauetan metatutako esperientziak aurreko agindua idazterakoan zenbait hobekuntza egin daitezkeen eskatzen du.

Azkenik, Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeak egingandako aldaketak bildu behar dira lurzorua udal-ondarearen araudian.

Horren arabera eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren 5. artikulua ezarritako ahalmenei jarraiki, honako, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuak, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoak, 42.1.e eta 43.1.b artikuluetan ezarritakoa garatzea. Artikulu horiek udalen lurzoru-ondareak osatzeko lurzoru kostu bidez eskuratzeari buruzkoak dira, betiere lehenasunez erregimen orokorre-

su artículo 42 como actuación protegida en materia de vivienda y suelo la adquisición onerosa de suelo para la formación de patrimonios públicos de suelo dependientes de cualquier Administración Pública, en ambos casos con destino preferente a la promoción de vivienda de protección pública.

El mismo artículo 42 establece que la regulación reglamentaria de esa actuación se desarrollará mediante Orden del Consejero competente en materia de Vivienda.

La anterior Orden de 30 de diciembre de 2002 incorporó una serie de ayudas para el fomento de las actuaciones en materia de patrimonios municipales de suelo para vivienda protegida, a través de subvenciones a fondo perdido y subsidiación del tipo de interés de préstamos cualificados.

Lo cierto es que dichas medidas han tenido muy poca acogida en los municipios vascos, en parte por la bajada en los tipos de interés de mercado, y en parte porque se trata de actuaciones que suponen un desembolso inmediato de recursos para una reserva de terrenos que no van a desarrollarse urbanísticamente a corto plazo.

No obstante, el nuevo Plan Director de Vivienda 2006-2009, considera que se trata de actuaciones muy interesantes para el desarrollo urbanístico ordenado de los municipios y la consecución de las finalidades básicas de regulación del mercado de suelo y vivienda de los patrimonios municipales del suelo, exigidas por la Ley del Suelo 2/2006.

Por tanto, se exige la búsqueda de modificaciones en las medidas financieras que hagan más atractivas las mencionadas actuaciones y por tanto, incrementen su número.

Asimismo, la experiencia acumulada a lo largo de estos años exige una serie de mejoras en la redacción de la Orden anterior.

Por último, se deben recoger las modificaciones introducidas por la Ley del Suelo 2/2006, en la regulación de los patrimonios municipales de suelo.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden el desarrollo de los artículos 42.1 e y 43.1 b del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, referente a la adquisición onerosa de suelo para formación de patrimonios municipales de suelo con destino preferente a la promoción de vivienda de

ko zein bereziko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratuta.

2. artikulua.— Jardun finantzagarrien eremua.

Agindu honi dagokionez jardun finantzagarritzat hartuko da lehentasunez erregimen orokorreko zein erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzoruak kostu bidez eskuratzea. Agindu honi dagokionez babes ofizialeko etxebizitzak (erregimen orokorrekoak zein erregimen berezikoak) sustatzeko lehentasuna izatea honako hau da: udal-ondarearen mugapen-tan bildurako etxebizitzetarako hirigintzako eraikigarritasunaren % 50 baino gehiago horretarako erabiltzea.

3. artikulua.— Onuradunak.

1.— Aurreko artikuluan zerrendaturiko jardunen onuradunak honako hauek izango dira: Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko udalak, baita tokiko organismo publikoak eta udal-sozietate publikoak ere, udal inter-dunaren aurretiazko baimena jaso ondoren.

2.— Onuradunei diru-laguntzak eta laguntza eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik tramitazioan dagoen edo zein itzulketa- edo zigor-prozedura amaitzea.

3.— Ezin dute deialdi honetan parte hartu, diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin penalki edo administratiboki zigortuta dauden edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekua duten —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoaren arabera sexua dela-eta bereizkeriak eragindako debekua barne— tokiko erakunde publikoak eta udal-sozietate publikoak.

4. artikulua.— Jardun finantzagarrien baldintzak.

1.— Jardunaren xede den lurzoruak ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 119. artikuluan eta hurrengoetan adierazitakoaren arabera formalizatutako erreserbako lurren mugaketan barne hartzeko modukoa eta gerora urbanizatzeko prozesura biltzeko gokia izan beharko du.

2.— Onuradunak edozein titulu juridikoren bitartez eskuratu ahal izango ditu ondasun higiezin horiek, baita nahitaezko desjabetze bidez ere, eta hirigintza-erregimenari eta balorazioei buruz aplikatzekoa den araudian adierazitakoa zorrotz betez tasatuko dira. Hortaz, eskuratze-kostua ezin izango da inolaz ere handiagoa izan.

protección oficial de régimen general y de régimen especial.

Artículo 2.— Ámbito de las actuaciones financiadas.

Al objeto de la presente Orden tendrá la consideración de actuación financiable la adquisición onerosa de suelo para la formación o ampliación de patrimonios municipales con destino preferente a la promoción de viviendas de protección oficial de régimen general y de régimen especial. A los efectos de esta Orden, se entenderá como preferente a la promoción de viviendas de protección oficial de régimen general y de régimen especial en más del 50% de la edificabilidad urbanística residencial correspondiente al suelo incluido en la delimitación de patrimonio municipal.

Artículo 3.— Beneficiarios.

1.— Podrán ser beneficiarios de las actuaciones financiadas enumeradas en el artículo anterior los Ayuntamientos de Álava, Gipuzkoa y Bizkaia, así como los organismos públicos locales y las sociedades públicas municipales, previa autorización del Ayuntamiento interesado.

2.— La concesión y, en su caso, el pago de las subvenciones y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.— No podrán concurrir a la convocatoria de las ayudas reguladas en esta orden los entes locales, organismos públicos locales y sociedades públicas municipales sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni las incurso en prohibición legal que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 4.— Condiciones de las actuaciones financiadas.

1.— El suelo objeto de actuación deberá ser susceptible de inclusión en una delimitación de terrenos de reserva formalizada de acuerdo con lo señalado en el artículo 119 y siguientes de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, así como apropiado para su incorporación posterior al proceso urbanizador.

2.— Dichos inmuebles podrán ser adquiridos por el beneficiario por cualquier título jurídico, incluida la expropiación forzosa, realizándose su tasación con estricta sujeción a lo señalado en la normativa de aplicación sobre régimen urbanístico y valoraciones, sin que en ningún caso su coste de adquisición pueda ser superior.

3.– Hala eta guztiz ere, onuradunak berak erosteko aukera badu, adierazitako mugaketa ez da izapidetu beharko.

4.– Nolanahi ere, Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak, bere zerbitzu teknikoaren bidez, lurzorua urbanizatzeko prozesura biltzeko legezko aukera materiala adieraziko du. Alderdi hori egiaztatutzat joko da mugaketa horrek jatorria dagokion Lurraldearen Zatiko Planean edo babespeko etxebizitzetarako bizi-tegi-lurzoruaren Lurraldearen Arloko Planean jasotako zehaztapenetan duenean.

5.– Jardunaren xede den lurzoru-erreserbaren erabileran nagusia erregimen orokorreko eta erregimen bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena izango da, hau da, udal-ondasunen mugaketan bildutako bizitegitarako hirigintza eraikigarritasunaren erabileretako % 50 gutxienez erregimen orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenerako izatea.

6.– Laguntza horiek jasotzeko aukera izateko babespeko etxebizitzaren sustapena lurrazal-eskubidea errespetatuz egin beharko da.

5. artikulua.– Laguntza motak.

Agindu honen babespean honako bi laguntza mota hauek jaso daitezke: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erabat edo zati batean mailegu kualifikatuak eta obra-ziurtagirien deskontuko eragiketarik subsidiatzea, eta, bestetik, zuzeneko diru-laguntzak.

6. artikulua.– Finantzaketaren erregimena.

A) Interes-tasak subsidiatzea:

1.– Eman beharreko finantzaketa Etxebizitza sailburuordearen ebazpen bidez zehaztuko da. Aldeko ebazpenaren jakinarazpena jaso ondoren onuradunak kreditu-erakundera jo ahal izango du, finantzaketa formalizatzeko.

2.– Onuradunek mailegu kualifikatuak eskatu ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin lankidetzaren hitzarmenak sinatu dituzten kreditu-erakundeetan. Mailegu horiek honako ezaugarri hauek izango dituzte:

a) Mailegu kualifikatuaren gehieneko zenbatekoak ezin izango du gaudituzko babes daitekeen jardunaren aurrekontuaren guztizko kostua, proiektuaren bideragarritasun tekniko eta finantzarioari buruzko txostenaren jasotakoa.

b) Amortizaziorako aldien eta, hala badagokio, ga-bealdiaren arteko batura gehienez ere hamabi urtekoa izango da.

Hipoteka-mailegua alde aurretik mugaeguneratuko da eta jasotako laguntza guztiak eta horiei legez dagozkien interesak itzuli beharko dira mailegu-hartzaileak kostu bidezko tituluaren bidez eskualdatzen badu

3.– No obstante, no será necesaria la tramitación de la aludida delimitación, si el beneficiario dispusiera de opciones de compra a su favor.

4.– En cualquier caso, la Dirección de Suelo y Urbanismo, mediante informe de sus servicios técnicos, señalará la posibilidad legal y material de su incorporación al proceso de urbanización. Este extremo se entenderá acreditado cuando dicha delimitación tenga origen en determinaciones existentes en el Plan Territorial Parcial correspondiente o en el Plan Territorial Secundario de suelo residencial para vivienda protegida.

5.– El destino preferente de la reserva de suelo objeto de actuación será el de promoción de viviendas de protección oficial de régimen general y de régimen especial, entendiéndose por tal que al menos un 50% de los usos con edificabilidad urbanística residencial correspondiente al suelo incluido en la delimitación de patrimonio municipal se destinen a promoción de viviendas de protección oficial de régimen general y de régimen especial.

6.– Para acceder a este tipo de ayudas será preciso que la promoción de las viviendas protegidas se desarrolle en derecho de superficie.

Artículo 5.– Modalidades de ayuda.

Al amparo de la presente Orden se podrán conceder dos tipos de ayudas económicas: subsidiación total o parcial por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco del tipo de interés de los préstamos cualificados, y la concesión de subvenciones dinerarias directas.

Artículo 6.– Régimen de la financiación.

A) De la subsidiación de tipos de interés:

1.– La determinación de la financiación será objeto de resolución emitida por el Viceconsejero de Vivienda. Notificada la resolución favorable, el beneficiario podrá acceder a los Establecimientos de Crédito con objeto de formalizar la financiación.

2.– Los beneficiarios podrán solicitar de los Establecimientos de Crédito que hayan suscrito Convenio de Colaboración con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, préstamos cualificados con las siguientes características:

a) La cuantía máxima del préstamo cualificado no podrá exceder del coste total presupuestado de la actuación protegible recogido en la correspondiente memoria de viabilidad técnico-financiera del proyecto.

b) La suma de los periodos de amortización, y en su caso de carencia, será como máximo de doce años.

El préstamo hipotecario quedará vencido anticipadamente, procediendo a la devolución de la totalidad de las ayudas percibidas junto con los correspondientes intereses legales, si, antes de concluir estos plazos, el

finantzaketaren helburu den lurzorua aipatutako epe horiek amaitu baino lehen.

Hala ere, ez da alde zuzenetik mugaeguneratuko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eskualdatzea baimendu ondoren, lurzorua eskuratzailea maileguan eta subsidiazioan subrogatzen denean, horretarako Etxebizitzako sailburuordeak emandako ebazpen berriaren arabera, betiere eskuratzailer berria agindu honetako 3. artikuluan adierazitako baldintzen arabera laguntzen onuradun izan badaiteke. Halaber, emandako mailegua alde zuzenetik mugaeguneratuko da mailegu-hartzaileak, bere kabuz edo beste sustatzailearen batekin hitzartuta, egindako etxebizitzaren sustapenerako beste mailegu bat lortzen duenean.

c) Maileguez kreditu-erakunde mailegu-emaileek beharrezko irizten dituzten bermeak izango dituzte.

d) Kreditu-erakundeekin sinatutako finantza-hitzarmenari jarraiki administrazio-baimenean zehaztutako interes-tasa berriaz mota horretarako finkatutakoa izango da. Interes-tasa hori Eusko Jaurlaritzak berriazko dekretuen bidez ezarriko du.

e) Mailegua eskuratzeko zatiak mailegu-hartzaileak finkatutakoak izango dira eta kreditu-erakundeak libratuko ditu inbertsioaren garapenaren arabera.

f) Kapitalaren amortizazioa eta kreditu-erakundeen interesak bilduko dituzten kuotak konstanteak izango dira eta sei hilabetean behin sortuko dira, horiek ordaintzeko era edozein delarik ere.

4.- Subsidiatutako interes-tasa, urteko interes-tasa efektiboaren % 0 izango da eragiketaren onuradunarentzat, maileguaren iraunaldi osoan.

B) Zuzeneko diru-laguntzak:

1.- Agindu honen babespean, onuradunak gehienez ere artikuluko honetako 2.a) idatz-zatian adierazten den aurreikusitako kostuaren % 25eko diru-laguntza jaso dezake.

2.- Diru-laguntzaren baldintza zehatzak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Etxebizitza sailburuordearen ebazpenean bilduko dira. Bertan, laguntza horren zenbatekoa eta araudi honetan alderdientzat aurreikusitako berriazko konpromisoak zehaztuko dira.

7. artikulua.- Finantzaketa-neurriak lortu ahal izateko baldintzak.

Onuradunak lurraz erosteko aukeren titularra izan behar du edo lurzorua jabetza lortzea ahalbidetuko dion beste edozein titulu eduki.

Desjabetzearen bidez eskuratzeko denean, ezinbestekoa izango da Udaletxeak, dagokion pertsonaren bitar-

prestatario transmitiera a título oneroso el suelo objeto de financiación.

No obstante, no tendrá lugar el vencimiento anticipado cuando, previa autorización de la transmisión por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, el adquirente de dicho suelo se subroga en el préstamo y en la subsidiación, conforme a una nueva resolución del Viceconsejero de Vivienda, siempre y cuando el nuevo adquirente pueda ser beneficiario de las ayudas en los términos del artículo 3 de la presente Orden. Asimismo quedará vencido anticipadamente el préstamo concedido, cuando se obtuviera un nuevo préstamo para financiar la promoción de viviendas que acometa el prestatario, por sí mismo o mediante concierto con un promotor.

c) Los préstamos tendrán las garantías que los Establecimientos de Crédito prestamistas consideren necesarias.

d) El tipo de interés determinado en la autorización administrativa conforme al Convenio Financiero vigente suscrito con los Establecimientos de Crédito, será el fijado específicamente para esta figura en los correspondientes Decretos del Gobierno Vasco.

e) Las disposiciones de cada uno de los préstamos serán efectuadas por el prestatario y libradas por el Establecimiento de Crédito en función del desarrollo de la inversión.

f) Las cuotas comprensivas de amortización de capital e intereses de los Establecimientos de Crédito serán constantes y se devengarán semestralmente, con independencia de su pago.

4.- El tipo de interés subsidiado resultante para el beneficiario de la operación, será el 0 por 100 de interés efectivo anual, durante todo el período de vida del préstamo.

B) De las subvenciones dinerarias:

1.- Al amparo de la presente Orden se podrá subvencionar al beneficiario por una cuantía máxima del 25% del coste previsto a que se refiere el apartado 2.a) de este artículo.

2.- Las circunstancias concretas de la subvención se recogerán en la resolución del Viceconsejero de Vivienda del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, especificando su cuantía y los compromisos específicos de las partes previstos en esta normativa.

Artículo 7.- Requisitos para el acceso a las medidas de financiación.

El beneficiario, deberá ser titular de opciones de compra a su favor de los terrenos o cualquier otro título que le habilite para acceder a la propiedad del suelo.

En caso de adquisición por expropiación, será preciso que el Ayuntamiento, a través de quien correspon-

tez, udalaren lurzoru-ondarerako erreserbako lurrak mugatzeko prozedura hasteko erabakia hartu izana.

8. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea, tokia eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskaerak Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzara bidali beharko dira. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Erregistro Orokorrean aurkez daitezke edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehaztutako moduetakoren batean aurkeztuko dira.

2.– Eskaerarekin batera, 7. artikuluko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriez gain, honako hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Lurzoru urbanizagarri programatu gabea edo sektorizatu gabea edo bere babes bereziaren arabera urbanizatzeko prozedura biltzeko baztertu gabeko lurzoru urbanizaezina dela baieztatuko duen udal-ziurtagiria, betiere urbanizatu eta eraikitzeke prozedura biltzen denean lehentasunez babespeko etxebizitzak eraikitzera zuzentzen bada.

b) Egin nahi den babespeko jardunaren ezaugarriak jasotzen dituen txostena.

c) Jardunaren bideragarritasun teknikoa eta hirigintzakoa justifikatzen duen txostena. Bertan honako hauek adieraziko dira: lurzorua eskuratzeko kostuak eta urbanizatzeko balioespenarenak, eskuratzearen, urbanizatzearen eta eraikitzearen aldiak programazio xehatua, erregimen orokorreko eta bereziko babes ofizialeko etxebizitzak eta aurreikusitako lurzoruaren gainarako erabilereen salmenta-prezioa eta eragiketaren finantza-garapena.

d) Lurrak erosteko aukerak bere izenean edo lurzoruaren jabetza lortzea ahalbidetuko dion beste edozein titulu.

e) Mugaketa-prozedura hastea erabaki eta jendarean jartzen duen udal-erabakia.

f) Horrez gain, lurren jabetza eskuratzen duen eskaizaleak honako konpromiso hauek izenpetu beharko ditu:

– Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 119. artikuluan adierazitakoari jarraiki, udalaren lurzoru-ondarerako erreserbako lurrak mugatzeko proiektua behin betiko onartzea Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak aldeko ebazpena ematen duenetik hasi eta sei hilabeteko epean.

– Udaltzak aurreko proiektuari behin betiko onartzea emateko erabakia hartzen duenetik hasi eta hiru hilabeteko epean lurrak eskuratzen hastea.

da, haya acordado iniciar el procedimiento de delimitación de terrenos de reserva para patrimonio municipal de suelo.

Artículo 8.– Presentación de solicitudes, plazo, lugar y documentación.

1.– Las solicitudes se dirigirán a la Dirección de Suelo y Urbanismo, pudiendo ser presentadas en el Registro General del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales o remitidas por cualquiera de las formas previstas en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas.

2.– A la solicitud deberá acompañarse, en cada caso, además de la documentación acreditativa de la concurrencia de los requisitos a que se refiere el artículo 7, la siguiente:

a) Certificado municipal en que conste el carácter de suelo urbanizable no programado o no sectorizado o suelo no urbanizable no excluido de su incorporación al proceso urbanizador en función de su especial protección, siempre que una vez incorporado al proceso de urbanización y edificación sea destinado predominantemente a la construcción de viviendas protegidas.

b) Memoria que recoja las características de la actuación financiable que se pretende realizar.

c) Memoria justificativa de la viabilidad técnica y urbanística de la actuación, con indicación de los costes de adquisición del suelo y de la estimación de su urbanización, la programación temporal pormenorizada de la adquisición, urbanización y edificación, precio de venta de las viviendas de protección oficial de régimen general y de régimen especial y de los otros usos previstos del suelo, y el desarrollo financiero de la operación.

d) Opciones de compra a su favor de los terrenos o cualquier otro título que le habilite para acceder a la propiedad del suelo.

e) Acuerdo municipal por el que se acuerda iniciar el procedimiento de delimitación, sometiéndolo a información pública.

f) El solicitante, que adquiera la propiedad de los terrenos deberá suscribir además los siguientes compromisos:

– Aprobar definitivamente el proyecto de delimitación de terrenos de reserva para patrimonio municipal de suelo, de acuerdo con lo señalado en el artículo 119 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en el plazo de seis meses a partir de la resolución favorable emitida por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

– Iniciar la adquisición de los suelos, en el plazo de tres meses a contar del acuerdo del Pleno del Ayuntamiento por el que se conceda la aprobación definitiva al proyecto anterior.

– Adierazitako lurak legez ahal bezain laster biltzea urbanizatzeko prozesura.

– Eskuratutako lurren gaineko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak, Jabetza Erregistroan erregistratu beharko direnak, Euskal Autonomia Erkidegoaren edo eskubideak lagako dizkion erakunde publikoaren alde ematea, honako era honetan:

a.– Lehentasunez erosteko eskubidea, hamar urtean indarrean egongo dena. Eskubide hori hirurogei egun naturaleko epean erabili ahal izango da, saltzaileak aurreko paragrafoan aipaturako lehentasunez erosteko eskubidearen titularrari etxebizitza saltzeko, eskaintako prezioa, eskualdatzearen funtsezko baldintzak eta lurra eskuratu nahi duenaren izena, helbidea eta egoera bilduko dituen jakinarazpen frogagarria helarazten dionetik hasita.

b.– Atzera eskuratzeko eskubidea, hamar urteko epekoa, Kode Zibilaren 1507 artikuluan eta ondorengoean xedatutakoari jarraiki, aurreko paragrafoan aurreikusitako jakinarazpena egin ez denean, bertan eskutatuko edozein baldintza bete ez denean edo eskualdatzearen benetako balioa txikiagoa denean edo horren gainarako baldintzak kostu gutxiagokoak direnean.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoren bati eraikiko diren babespeko etxebizitzetan sustapenak kokatuko diren lursailen dagokien azalera-eskubidea dohainik emateko konpromisoa, edo, udalak berak bere esku gordetzea azalera-eskubide hori.

3.– Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak aurkeztutako eskaeran zerbait falta dela edo gaizki adierazita dagoela edo aurkeztu beharreko agiriren bat falta dela atzematen badu, eskatzaileari jakinaraziko eta 10 eguneko epea emango dio arazoa konpontzeko edo falta dena aurkezteko eta hori egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela adieraziko dio, ebazpena —Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritako moduan idatzi beharrekoa— eman ondoren.

9. artikulua.— Laguntzak esleitzeko prozedura.

1.— Agindu honetan araututako erregimenaren bidez laguntzak eskatzen direnetik eman arte ahalik eta denbora gutxien igarotzea nahi da; hori dela-eta, espedienteak osatzen diren hurrenkeran esleitu dira, lehiaketa-sistematik erabili gabe.

2.— Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ezin izango du gainditu dagokion esleipena edo hori eguneratzearen ondoriozkoa, indarrean dagoen legeria aplikagarriari jarraiki aurrekontu-aldaketak onartzen direnean.

– Incorporar al proceso urbanizador los citados terrenos tan pronto como fuese legalmente posible.

– Otorgar los derechos de tanteo y retracto, que deberán ser inscritos en el Registro de la Propiedad, sobre los terrenos así adquiridos, a favor de la Comunidad Autónoma del País Vasco o del Ente Público a quien aquélla ceda sus derechos, de la siguiente forma:

a.– Derecho de tanteo, con una vigencia de diez años. Este derecho se podrá ejercitar en el plazo de sesenta días naturales, a contar desde el siguiente a aquel en que se notifique en forma fehaciente por el vendedor al titular del derecho de tanteo al que se refiere el párrafo anterior, la decisión de vender los terrenos, el precio ofrecido, las condiciones esenciales de la transmisión y el nombre, domicilio y circunstancias del que pretende adquirir los terrenos.

b.– Derecho de retracto en igual plazo de diez años, con arreglo a lo dispuesto en los artículos 1507 y siguientes del Código Civil, cuando no se hubiera hecho la notificación del tanteo prevista en el apartado anterior, se omitiere en ella cualquiera de los requisitos exigidos o resultare inferior al precio efectivo de la transmisión o menos onerosas las restantes condiciones de ésta.

g) Compromiso de dación a título gratuito a alguna administración pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco del derecho superficiante correspondiente a las parcelas donde se ubiquen las promociones de vivienda protegida o reserva por parte del propio ayuntamiento de este derecho superficiante.

3.— Si la Dirección de Suelo y Urbanismo advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto, inexactitud, o la ausencia de algún documento de los que deben acompañar a la misma, lo comunicará al solicitante concediéndole un plazo de 10 días para que proceda a su subsanación o aportación, con indicación de que si así no lo hiciera se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 9.— Procedimiento de adjudicación de las ayudas.

1.— Mediante el régimen regulado en la presente Orden se pretende que exista el menor plazo de tiempo posible entre la petición y la concesión de las ayudas, por lo que la adjudicación de las mismas se efectuará ordenadamente en función del momento en que el expediente esté completo sin utilizar la técnica concursal.

2.— El volumen total de ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no excederá la correspondiente consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente apli-

Hortaz, ez da laguntza berririk emango zenbateko hori agortu ondoren. Kreditua agortu izana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez.

3.– Hala ere, araudi honetan bildutako arautzeari jarraiki baiezkota jasotzeko baldintza guztiak betetzen dituzten eta baliabide ekonomikorik ez izateagatik soilik ezesten diren diru-laguntza lortzeko eskaerak hurrengo ekitaldian ebatzi ahal izango dira, betiere eskaerak Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzara idazki bat bidaltzen badu eta bertan eskaera baldintza berberetan mantentzeko asmoa adierazten badu.

4.– Urtero, ekitaldi bakoitzeko lehen hiru hilabeteen barruan eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren agindu bidez, diru-laguntzen linea honetara zuzendutako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoa argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

10. artikulua.– Laguntzak kudeatzeko organoa eta eskaeren ebazpena.

1.– Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzari dagokio agindu honetan ezarritako laguntzak kudeatzea.

2.– Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak txostena egin ondoren, Etxebizitza sailburuordeak, eskaera aurkezten denetik hasi eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskatu diren laguntzak esleitu edo ukatzeko ebazpena emango du. Ebazpen hori interesdunei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua jar dakioko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari, ebazpena jakinarazi den egunetik hasi eta hilabeteko epean.

3.– Ebazpena emateko epea amaitu, eta interesdunari ez bazaio horren berri eman, laguntza-eskaera ukatu egin dela ulertu beharko da.

11. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Agindu honen babespean emango diren laguntzak honela ordainduko dira:

a) Interes-tasak subsidiatzekoak:

Laguntza hauek zuzenean ordainduko dizkio onuradunak finantzatutako mailegu-eragiketa edo banku-deskontua berarekin formalizatu duen kreditu erakundeari, kreditu-erakunde mailegu-emaileek aurkeztu beharko dituzten interesen subsidiazioen sei hileko likidazioen bitartez, etxebizitza eta lurzoruaren arloan babes daitezkeen jardunetarako EAEn lanean diharduten

cable. No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, haciéndose público el agotamiento del crédito en el «Boletín Oficial del País Vasco», mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

3.– No obstante, las solicitudes que reúnan todos los requisitos para ser atendidas conforme a la regulación contenida en la presente normativa y se denieguen únicamente por falta de recursos económicos, podrán ser resueltas en el ejercicio económico siguiente, siempre y cuando el solicitante dirija un escrito a la Dirección de Suelo y Urbanismo manifestando su intención de mantener su solicitud en las mismas condiciones.

4.– Anualmente, dentro de los tres primeros meses de cada ejercicio, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se dará publicidad, en el «Boletín Oficial del País Vasco», del importe de los créditos consignados para la financiación de las ayudas destinadas a esta línea subvencional.

Artículo 10.– Órgano de gestión y resolución de solicitudes.

1.– Corresponde a la Dirección de Suelo y Urbanismo la realización de las tareas de gestión de las ayudas previstas en la presente Orden.

2.– Previo informe de la Dirección de Suelo y Urbanismo, el Viceconsejero de Vivienda dictará en un plazo máximo de tres meses, contados a partir de la presentación de la solicitud, resolución en la que se determinará la adjudicación o denegación de las ayudas solicitadas. Dicha resolución será notificada a los interesados, y asimismo será objeto de publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra esta resolución podrá presentarse recurso alzada ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco en el plazo de un mes desde la notificación de la misma.

3.– Transcurrido el plazo previsto para dictar la resolución sin que ésta se haya notificado resolución alguna al interesado, podrá entenderse estimada la solicitud formulada.

Artículo 11.– Pago.

1.– El abono de las ayudas que se concedan al amparo de la presente se harán efectivas, del modo siguiente:

a) Las consistentes en subsidiación de tipos de interés:

El abono de estas ayudas se efectuará por cuenta del beneficiario directamente al establecimiento de crédito con el que tenga formalizada la operación de préstamo financiada o mediante liquidaciones semestrales de subsidios de intereses a presentar por los Establecimientos de Crédito prestamistas, en base al procedimiento establecido en el Convenio Financiero en vigor con Es-

kreditu-erakundeekin izenpetutako finantza-hitzarmenean indarrean dagoen prozeduraren arabera.

b) Diru-laguntzak ematekoak:

Diru-laguntza hauek zuzenean ordainduko zaizkio onuradunari, Etxebizitza sailburuordearen ebazpenen bidez, emandako laguntza osoa libramendu bakar batean ordainduz, onuradunak lurzoruaren titulartasunaz gain, agindu honen 8.2. artikuluan adierazitako lehen-tasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea egiaztatzen duen erregistroaren ziurtagiria aurkeztu ondoren.

Ordainketa horren zenbatekoa honela kalkulatu da: aurkeztutako ziurtagirien bidez egiaztatutako gastuagatik emango den ehunekoia izango da laguntza emateko kontuan hartu den aurrekontua dela-eta emandako diru-laguntzaren portzentaje bera.

12. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak bateagarriak izango dira xede berarekin eman daitezkeen bestelako laguntzekin.

2.– Bestelako diru-laguntzarik jasoz gero, diru-laguntza guztien zenbateko osoak ezin izango du diruz lagundutako jardunen kostua gainditu. Bestela, bidezko izapideak egin ondoren, emandako diru-laguntza dagokion kopuruan gutxituko da.

13. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak jasotzen dituzten erakunde onuradunek, betiere, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

a) Emandako laguntza onartzea. Diru-laguntza eman izana iragartzen duen jakinarazpena jasotzen duten egunetik hasi eta hilabeteko epean erakunde onuradunek 8.f) artikuluan adierazitako konpromisoak onartzen dituztela berariaz adierazten ez badute, diru-laguntzari uko egin diotela ulertuko da.

b) Diru-laguntza eman den xederako erabiltzea eta zehazki, lurzoruak diruz lagundutako jardunaren memorian adierazitako xederako erabiltzea.

c) Diru-laguntza emateko bete beharreko betekizunak eta baldintzak bete direla egiaztatzea.

d) Helburu berarekin diru-laguntza edo laguntzak, diru-sarrera edo baliabideak jaso badira erakunde emaileari horien berri ematea.

e) Diru-laguntza ematen duen erakundeari diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein zirkunstantzia objektiboren zein subjektiboren aldaketa jakinaraztea.

tablecimientos de Crédito operantes en la Comunidad Autónoma de Euskadi por actuaciones protegibles en materia de vivienda y suelo.

b) Las consistentes en subvenciones dinerarias:

El abono de estas ayudas se efectuará mediante resolución del Viceconsejero de Vivienda directamente al beneficiario mediante un único libramiento por la totalidad de la ayuda concedida, previa la presentación de certificación registral donde se haga constar tanto la titularidad del suelo por el beneficiario como el derecho de tanteo y retracto señalado en el artículo 8.2.

El importe de dicho libramiento se efectuará por cuantía tal que suponga, respecto del gasto acreditado mediante la certificación presentada, el mismo porcentaje que la subvención otorgada respecto del presupuesto tomado en cuenta para su concesión.

Artículo 12.– Compatibilidad con otras subvenciones.

1.– Las ayudas previstas en la presente Orden serán compatibles con cualesquiera otras que pudieran concederse para la misma finalidad.

2.– En el caso de concurrencia con otras ayudas, el conjunto de las mismas no podrá superar el coste de las actuaciones subvencionadas. En caso contrario se procedería, previa sustanciación de los trámites oportunos, a la minoración de la ayuda concedida en la cantidad que corresponda.

Artículo 13.– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

1.– Las entidades beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la ayuda concedida. En este sentido, si en el plazo de un mes tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la resolución de concesión de la subvención, las entidades beneficiarias no manifestaran expresamente la aceptación de los compromisos del artículo 8.f), se entenderá que renuncian a la subvención concedida.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida y en concreto, destinar los terrenos a las finalidades recogidas en la memoria de la actuación subvencionada.

c) Justificar el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión de la ayuda.

d) Comunicar a la entidad concedente la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

e) Comunicar a la entidad concedente la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la ayuda.

f) Euren funtzioen jardunean Kontrol Ekonomiko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatzen duten informazioa ematea, deialdi honen kargura jasotako diru-laguntzen inguruan.

14. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein baldintza aldatzeak eta, hala badagokio, beste edozein erakunde publiko zein pribatuk emandako bestelako laguntzak aldi berean jasotzeak laguntza emateko ebazpena ere aldatzea ekar dezake, baldin eta haren xedea betetzat hartzen bada. Horretarako, Etxebizitza sailburordeak aldaketa egiteko bidezko ebazpena emango du eta bertan, hala badagokio, emandako diru-laguntzen zenbatekoak doitu egingo dira.

15. artikulua.– Baldintzak ez betetzearen ondorioak.

Agindu honetan adierazitako baldintzak eta eskakizunak betetzen ez badira, eta administrazio-izapideak eginda, eten egingo da emandako subsidiarioa eta, horrez gain, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak subsidiario edo diru-laguntza gisa une horretara arte ordaindutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, ordaindu zirenetik sortutako interesekin batera.

Ondorioak berdinak izango dira hasieran ezarritako programazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren baimekin gabe aldatzen denean edo programazio hori betetzerakoan atzeratzeak (justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik) agindu honen 8.2.f) artikuluan lurzorua eskuratzeko eta urbanizatzeko ezarritako epeak betetzea ezinezkoa izango dela erakusten duenean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jartzen denean, indarririk gabe geratuko dira Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko abenduaren 30eko Agindua, lehenasunez babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzoru-ondare publikoak osatzeko lurzorua kostu bidez eskuratzeari buruzko lurzoruaren eta urbanizazioaren inguruko finantza-neurriei buruzkoa, eta agindu honetan xedatutakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak, horien babespean sortutako egoerei aplikatzen jarraitu ahal izatea aparte utzi gabe.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 29a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

f) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

Artículo 14.– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las ayudas. A estos efectos, el Viceconsejero de Vivienda dictará la oportuna Resolución de Liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

Artículo 15.– Efecto del incumplimiento.

El incumplimiento de cualquiera de las condiciones y requisitos a que se refiere la presente Orden determinará, previa la tramitación administrativa oportuna, la interrupción de la subsidiación otorgada, así como el reintegro de las cantidades hechas efectivas hasta este momento por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en concepto de subsidios y/o subvención, incrementados en los intereses de demora desde su pago.

Los mismos efectos tendrán lugar cuando la programación inicial establecida se modifique sin autorización de la Comunidad Autónoma del País Vasco o cuando los retrasos en el cumplimiento de dicha programación, salvo causa justificada, pongan de manifiesto la imposibilidad de cumplir los plazos de adquisición de suelo establecidos en el artículo 8.2.f) de esta Orden.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor de la presente Orden queda derogada la Orden de 30 de diciembre de 2002 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras en materia de suelo y urbanización referente a la adquisición onerosa de suelo para formación de patrimonios públicos de suelo con destino preferente a la promoción de vivienda de protección oficial, y cuantas disposiciones se opongán a lo dispuesto en aquella, sin perjuicio de que puedan seguir aplicándose a las situaciones creadas a su amparo.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del País Vasco».

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de diciembre de 2006.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.